

## I-ENER-rekin (IPARRALDE) BATERA JARRIKO DITUGUN INSTALAZIO FOTVOLTAIKOEN DESKRIPZIO TEKNIKO EKONOMIKOA

### AURREKARIAK ETA MOTIBAZIOAK.

IPARRALDEko I-ENER kooperatiba euren lurraldean GOIENER-ren antzeko zerbait egin nahi duten pertsonekin izandako harremanen ondorioz jaio da. Merkaturatzeari dagokionez merkatu frantziarrak duen konplexutasuna dela eta, eta aipatu estatuak energia berriztagarria sortzeko eskaintzen dituen erraztasunak dela medio, I-ENER kooperatibak erabakitzen du bere jarduerari hasiera ematea energia sortuz.

Bidean esperientziak, beharrak, kezak elkar trukatzuz joan gara. 2017An BAZKIDEAREN EGUNA<sup>1</sup> ospatu genuen eta 2017ko udan I-ENER-ren egitasmoen finantziazioan NAFARKOOP-ek laguntzeko aukera baloratzeko lehen hurbiltze saioa egin genuen.

Sorkuntza taldetik aukera ederra ikusi da honako hauek praktikan jarri ahal izateko:

- Inter-kooperazioa, edo bestela esanda, kooperatiben arteko elkartasuna.
- Iparralde-Hegoaldearen arteko proiektu globalen loturak ikustaraztea.
- Elkarrekin etorkizuneko anbizio handiagoko proiektuen ikerketaren hasiera.
- Erabat bestelakoak diren bi merkatuen errealitatea hurbiletik ezagutuz, elkarrekin eta elkarrengandik ikastea.

### INFORMAZIO TEKNIKOAK

Proiektuak fotovoltaiakoak dira, eraikin publikoetako estalduretan instalatutakoak. Energia sarean sartzen da eta estatuak ordaindu egiten du.

Instalazioak 10kW baino txikiagokoak dira eta ezarrita daude:

- Bardozeko eskolan
- Bardozeko ezker paretan
- Baigorriko kanpinean
- Anhauzeko elizan
- Eihalarreko trinketean
- Lehuntzeko trinketean

Proiektu hauek oraindik garatzeke daude eta finantzazio zati bat I-ENER-reko bazkideek ordaintzen dute.

---

<sup>1</sup> <https://www.goiener.com/eu/2017/01/i-ener-eta-goiener-elkarrekin-aurtengo-bazkide-egunean-hendaian/>

## INFORMAZIO EKONOMIKOA

Frantziar estatuak 17,7c€/kWh ordaintzen du; hortaz, erabat bideragarriak dira; izan ere, Espainiako merkatuan kostu baliokidea 4,5 eta 5 c€/kWh bitartean izango litzateke.

I-ENER-reko bazkideak oraindik ez dira asko eta ezinezkoa zaie nahi luketen proiektu guztiei ekitea.

GOIENER-NAFARKOOP-en bazkide kopurua 2018an 8000 pertsonakoa izanik, 15 urtetarako mailegu batez I-ENER-ri laguntzeko aukera ikusten da.

Aukera honetan NAFARKOOP ez da instalazioetako titularra, IPARRALDEN proiektuak garatzeko dirua uzten duen entitatea baino ez da.

Elkarlan modu honek lortu nahi du I-ENER-rek presentzia handiagotzea eta, hartara, bazkide kopuruak gora egitea eta, horrela, pixkana pixkana bi aldeen intereseko proiektuak garatu ahal izatea.

## INTERESA DUEN BESTE INFORMAZIO BAT

I-ENER-ren webgunean ikusi daitezke proiektuak xehetasun handiagoarekin.

